



"SAGASTIAK LORETAN 2016" ospakizuna Sagardoaren Lurraldean.

maiatza 9, 2016 Saikatu gabea 0 comments



Udaberriaren etorrerarekin batera, gure sagarrondoak lorez bete eta sagastiak txuri kolorez janzten dira. Urte sasoi honek gure sagastietan duen garrantzia ospatu eta sagastiek eskaintzen dizkiguten paisaia zoragarriez gozatu ahal izateko, maiatzean "Sagastiak loretan 2016" ekimena ospatuko dugu Sagardoaren

Lurraldean.

Sagardoetxeako udaberriko bisitak

Data: apirila-maiatza

Lekua: Sagardoetxea (Astigarraga)

Ordutegia: asteartetik larunbatera 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara; igandetan 11:00etatik 13:30etara.

Sagardoetxeako bisitetako edukiak udaberriko egutegira moldatu eta erleen mundua, polinizazioa eta sagastiko intsektuak landuko dira bisitariekin. Honetaz gain, loretan

dauden sagarrondoetan barrena ibilaldia egiteko aukera eskainiko zaie bisitariei, paisaiaz gozatuz.

"Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa

Data: Maiatzak 13-22

Lekua: Sutegi (Usurbil)

Orduetgia: asteazkenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara; larunbatean 12:00etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara eta igandean 12:00etatik 13:30etara.

Aspaldidanik ibaiak komunikaziorako giltzarriak izan dira eta harreman ekonomikoak eta sozialak eratzeko erabili izan dira. Iraganean, ibaiak bizitza nahiz "aberastasunaren iturri" eta aintzinako "autobideak" izan ziren.

Urumea eta Oria Gipuzkoako bi ibai nagusiak, "sagardo ibaiak" eta puntako teknologia guneak izan ziren aintzinan. Portu-instalazio eta zerbitzuak izan zituzten, beren ur bazterretan salerosketa gune ugari izan ziren eta asko izan ziren beren uren ertzetan gertatutako istorio harrigarri eta bitxiak.

Museoen Nazioarteko Egunaren ospakizuna: "Erleen bizimodua ezagutuz" bisita gidatua

Data: Maiatzak 18

Lekua: Sagardoetxea (Astigarraga)

Orduak: 11:30etan (euskaraz) eta 12:30etan (gaztelaniaz)

Izen-emateak: info@sagardoetxea.com / 943550575

Maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko da Sagardoetxean. Aurten nazioarte mailako gaia "Museoak eta paisaia kulturalak" da eta Sagardoetxean "Erleen bizimodua ezagutuz" bisita gidatua eskainiko da.

Urtero bezala, egun horretan museorako sarrera dohakoia izango da.

"Luis eta Eugeniaren bikiak" ikuskizuna

Data: Maiatzak 28

Lekua: Sagardoetxea (Astigarraga)

Ordua: 17:30

Maiatzaren 28an "Luis eta Eugeniaren bikiak" ikuskizuna eskainiko da Sagardoetxeako sagastian. Bertan, Astigarragako Murgiatarren Jauregiko Markesaren familia eta Santiagomendiko baserri bateko familia baten arteko istorioa irudikatuko da antzerkia, musika eta dantzaren bitartez.

Ikuskizun honetan Astigarragako hainbat talde kulturaletako hurrek parte hartuko dute, besteak beste Norberto Almandoz Musika Eskola, Astigarragako Antzerki Eskola eta Astigar E.O.E.ko dantzariak.

"Jatorrizko bekatua" zozketa sare sozialetan

Loretan dauden sagarrondoek eskaintzen diguten paisaia zoragarria aintzakotzat hartuz, "Jatorrizko bekatua" izeneko zozketa martxan jarriko da sare sozialetan.

Jatorrizko bekatuaren fruitua sagarra bada, Sagardoaren Lurraldean dago paradisua.



Zozketan parte hartu ahal izateko, erabiltzaileek #jatorrizkobekatua traola erabili eta beren argazkiak partekatu beharko dituzte Facebook, Instagram edo Twitteren eta parte-hartzaile guztien artean bi lagunentzako sagardotegiko otordua zozketatuko da.

Bilatzailea

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak



ZATOZ ETA GOZATU

Kale Nagusia, 48

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la uva

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA PROIEKTUAK AKORDIOAK KONTRATATZAILEAREN PROFILA

